

Herri Literatura. Aztertu dena eta aztergai dagoena

(Popular literature. What has been researched and what still remains to be researched)

Urkizu, Patri
Eusko Ikaskuntza
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48
20007 Donostia

BIBLID [1137-4454 (1997), 15; 141-151]

Herri Literatura: "Aztertu dena eta aztergai dagoena" artikuluan Patri Urkizuk tituluak adierazten duen bezalaxe herri literaturaz egindako lanen balantzea eskeintzen digu, alde batetik, eta bestetik erakusten ere zein diren hutsunak, zein eskuzkribu dagoen oraindik argitaragabe eta nondik jo dezaketen hurrengo azterketek. Lau arlo nagusitan sailkatzen du multzoa: A. Errefrauk; B. Herri-Teatroa; C. Kontagintza; D. Bertsoak eta kantak. Sail bakoitzari dagokion azken bibliografía aipatzen digu, eta argitasun aski ematen eguneratzeko dugun ezagutza gaiaren inguruan, bai halaber ikerlari berrientzat iradokizun interesgarririk.

Giltz-Hitzak: Herri Literatura.

En su artículo Patri Urkizu, tal y como da a entender su título, por un lado nos ofrece un balance de los trabajos realizados sobre literatura popular, y por otro nos muestra cuáles son los vacíos, qué manuscritos no han sido editados todavía y la dirección que pueden tomar los trabajos a venir. Clasifica el conjunto en cuatro campos principales: A. Refranes; B. Teatro Popular; C. Narrativa; D. Versos y canciones. Menciona la más reciente bibliografía en cada campo y proporciona no pocas aclaraciones sobre el tema que se trata de actualizar, y asimismo aporta algunas sugerencias para los nuevos investigadores.

Palabras Clave: Literatura Popular.

Dans son article, Patri Urkizu, tel que le laisse entendre son titre, nous offre d'un côté un bilan des travaux réalisés sur la littérature populaire, et de l'autre nous montre quels sont les vides, quels sont les manuscrits qui n'ont pas encore été édités et la direction que peuvent prendre les travaux à venir. Il classe l'ensemble en quatre domaines principaux : A. Proverbes ; B. Théâtre Populaire ; C. Narration ; D. Vers et chansons. Il mentionne la bibliographie la plus récente dans chacun des domaines et fournit de nombreux éclaircissements sur le thème que l'on essaie d'actualiser, et apporte de cette façon quelques suggestions pour les nouveaux chercheurs.

Mots Clés: Littérature Populaire.

EGUNON:

Lehen-lehenik mila esker Herri Literaturaz ikastaro hau antolatu duen Koldo Tapia jaunari bertara gonbidatzeagatik. Ez dakit zergatik eta nola baina badirudi uste izan duela, zer esanik banuela aztertu denaz eta aztergai dagoenaz. Hori epaitzea eta erabakitzea zuen esku.

Badira urte batzuek hasi nintzela parte hartzen uda ikastaro hauetan, VII baino gehiago, noski. Adibidez, Joseba Andoni Lakarrak 86an Hiztegiak eta Testuak izenez antolatu zituen jardunaldietan, ni Pierre D'Urteren Hiztegi argitaragabeaz mintzatu nintzen, eta ene uste apalez ordukoak ere europarrak izango ginen, tartean besteak beste, Teresa Cabré anderea Bartzelonako irakasle ospetsua baitzen.

Gaurko saioan zertaz mintzatuko naitzaizuen? Bada, ikerpuntuak, lau partetan banatuak izango dituzue:

- A. Errefrauak.
- B. Herri-Teatroa.
- C. Kontagintza, eta
- D. Bertsoak eta kantak.

Beraz, batik-bat lau moeta izango ditugu kontutan: lehenik, errefrauak edo esaera zaharrak; bigarren, herri-teatroa edo antzertia -bereziki Zuberokoak -; hirugarren kontagintza edo narraziozintza; bertso eta kantak azkenik.

A) ERREFRAUAK

Atsotitzak bezala ipuinak, izkirimiriak, kantak, bertsoak, eta antzertiak ere badu zerikus-tekorik mundu zabalago batekin, alegia, herri-literaturarekin edota Manuel Lekuonak deitzen zuen ahozko literaturarekin, azken hitz bikote honen kontraesana dela eta orain batzuek ahoz-kotasunaz edo "oralitatea"z mintzatzea hobesten duten arren.

Errefrauen edo atsotitzen erabilera, nioen bezala Oihenartenez mintzatzerakoan¹, oso arrunta izan da, bai herri xehearen ahotan, bai jakintsuetan, eta batipat hauek ez zuten inongo kupidarik sentitzen Errenazimendu garaian bildu zituztenak liburuetan emateko eta komentatzeko, zeren hornimendurako baliagarri izateaz gain, bizitzarako ere irakaspen ezberdinak ematen baitzitzaizuten .

1500ean Parisen Erasmo Rotterdam-goak plazaratu zuen lehen aldiz, idazle klasikoak aipatuz, 800 errefrau *Adagiorum Collectanea* deitu liburuan. Hau aberasten joan zen eta 1536ko edizioan jada 4515 biltzera iritsi zen. Honek frantses eta espainiar humanistengan eragin handia izan zuen eta imitatzailerako, hala nola: Pedro Vallés, Hernán Nuñez, Juan de Mal Lara, Henri Estienne, Charles de Bovelles, etabar.

* Donostian (1995-IX-1), XIV Uda Ikastaroak zirela eta Herri Literaturaz eman hitzaldia, berrikusirik.

1. Patri Urkizu, "Oihenarten atsotitzak eta poetika berrirakurritz", *Oihenarten Laugarren Mendeurrena*, Iker-8, Euskaltzaindia, Bilbo, 1994, 295-329.

XVI. mendekoak izango dira, hain zuzen ere, euskal atsotitzen lehen bildumak. Paremiologian aditua genuen Julio de Urquijok zioenez, Esteban de Garibay, arrasatearra *uno de los primeros vascófilos de que tengamos noticia*², izan zen saiatu zena biltzen lehena euskal esaera zaharrak, bi bilduma osatuz. Bata Códice G 139, eta bestea Códice Cc 79 bezala ezagutzen dira, eta beste aztertzaileen artean Joseba Lakarrak ikertu izan ditu bereziki³, besteak beste, hizkera eta Hernan Nuñez-ek egin bildumarekin duen zerikusia neronek ere Urquijok galdutzat ematen zuen eta Francisque Michelek bere ediziorako⁴ erabilitako Garibairen eskuzkribua Pariseko Ste Geneviève Liburutegian topatu nuen eta argitaratu⁵.

Eta Iruñean 1596ko urtean Pedro Porralis Ambereseko inprimatzailearen baitan argitaratu zen *Refranes y Sentencia comunes en Bascuence, declaradas en Romance*, izeneko euskal errefracuz liburuxoa. Detxepareren poemena bezala ale bakarrean kontserbatu izan da, Alemaniako Darmstadt hirian Jonkheer van Eys-ek aurkitua Hesse-ko Landgrave-aren liburutegian, eta jada dietenez desagertua. Bai Urquijok, bai eta Koldo Mitxelena idatzi izan dute maiz honetaz, adieraziz azken honen ale hori ez dagoela osatua eta Oihenartek ezagutu zituela iturri bereko beste hogeibet errefracu⁶. Lakarraren ustez, gainera, errefracu horiek ez dira Garibayrenak, Bilboko humanista batenak baizik.

Hala Garibaien (1592, 1596) nola Bertrand Zalgizekoaren (1612 ing.), Lope Isastikoaren (1625), Oihenarten (1657, 1664) eta Jakes Belakoaren (1667 aitzin) errefracuz arduratu dira ere besteen artean, Mitxelena bera, Jose Ramon Zubiaur⁷, Jesus Arzamendi⁸, eta Miren Azkarate, eta esan dezakegu berrietan ageri den hizkera eta hiztegia aski ongi aztertua dutela.

Mitxelena bildu zituen hizkuntzohar zenbait eginez (*Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madrid, 1964), baina ez zituen berak zuzenean ikusi eskuzkribuak bestek bilduak aipatu baizik adibidez, Jacques de Bela mauletar abokatu protestantearen lanetarik (oraindik argitaratzeke Pabeko artxiboetan) G. Clement-Simon-ek bildu zituen 45 errefracu. Honek haren lanetan sakabanaturik ziren zenbait atsotitz bildu zituen, baina egileak bezala azenturik ipini gabe, tartean beste honako ezagun hau aurki daitekeelarik: *Horac noun mina han mihia*. 39. beste aldaera hau ere irakur daiteke: *Nour dá hiré etsaya? Hiré oficiocoa*.

XVI. mendean Garibay. XVII.ean Zalgize, Isasti, Oihenart eta Bela. XVIII.ean Jusef Eguiategui errejenta zuberotarrak bildu zituen ere errefracu zenbait, Frankfurt-en moldiztegitatu omen zuen filosofiaz idatzi liburuz⁹ aparte, tamalez argitaragabe eta 2.046 gogoeta biltzen dituen¹⁰. Hona adibidez dioena gizonaz:

2. Julio de Urquijo, *El Refranero Vasco. Tomo I. Los refranes de Garibay*. San Sebastián, Martín, Mena y Cia. MCM-XIX, IX.

3. Joseba Lakarra, "XIV. mendeko Bizkaierazko errefracuz: Y. Garibairen bildumak", *Anuario de Filología Julio de Urquijo*, (Aurreantzean ASJU) XX-1, 1986, 31-66.

4. Francisque Michel, *Uskarazko zuhur-hitzac Aillande Oihenartec bildiac zoinen ondotic jiten beitura Uskaraz eghin zituen neur-t-hitzac. Bigarren edizionia arra ikhussia, kaztigatia, emendatia neuri-hitz franzasiala itzuliez eta beste zerbaitz zoini aitziniaz uskara-liburuen gainen ezarri beitziaio lanegin bat*. Bordelen, Prosper Faye, 1847.

5. Patri Urkizu, "Garibairen eskuzkiribu galdu bat (1592)", Donostia, *Mundaiz*, 1990, 33-63.

6. Luis Michelena. "Julio de Urquijo (+), De paremiología vasca. Oihenart conoció los Refranes y Sentencias de 1596", *ASJU I*, 1967, 3-45.

7. José Ramón Zubiaur, Jesús Arzamendi, "El léxico vasco de los refranes de Garibay", *ASJU*, X, 1976, 47-145.

8. Jesús Arzamendi, Miren Azkarate, "Léxico de los refranes de Bertrand de Zalgiz", *ASJU*, 1983, 265-327.

9. Jusef Eguiategi, *Lehen liburria edo filosofo huskaldunaren ekheia (1785)*. Txomin Peillenek prestatua. Euskaltzaindia, Bilbao, 1983.

10. *Oharkerak, esangiak eta bibetak Jussef Eguiateguic Suberoan errejent zenak bildu dutianac*. Bibliothèque Nationale de Paris. Fonds Celts et Basques, MS, nº 154.

Zer da gizona? *Kabale goserarik eritarsun gehiago diana, nigarretan sorthurik hoge bat urte zer den eztaiana, azote kalduz baizik ikasten eztaiana, hantik aizina bizipenaren errekeitiar phorrokaturik daguena, heriuaren lotsaz bizitze txarra berrestatzen diana, beti irrigaitz papagaia bezain elestari, etxahora bezain marrakari berantegi agi dena, hiltzeta hortzetan dolumenik gabe urthukitzen dena, sobera bizi dena. (f.145)*

Badu, bada, lan interesgarririk argitu nahiko litzukeenak Egiategiren bizitza zertzeladak, pertsonaia, eta argitaratu bere gogoeta-errefrau bilduma.

XIX. mendeari dagokionez, Pariseko Liburutegi Nazionalean ere bada eskuzkribu bat, 169 zenbakia, honela izendatzen duena besterik gabe Endrike Knörr-ek¹¹ bertako katalogoa kopiatuz:

nº 169. *Contes, chansons et poésies basques. Manuscrits et imprimés.*

Ez da errefrau aipamenik ematen, baina arakutzen baldin bada barneko eskuzkribuetan beste zenbait paperen artean Agusti Etcheverryk jasotako "Ichtorio zaharrezko bilkhuia bat" eta "Erran zaharrak", dakidalarik inork ez dituenak aipatzen.

Urquijoren liburutegian aurki daitezke ere hiru errefrau eskuzkribu honelaxe aipatzen dituenak Katalogoak:

nº 8919. *Proverbes, sentences, dictions, avec indications du lieu... (18-?), 14 p.*

nº 8922. *Proverbios roncaleses recogidos por D.R.M. de Azkue en Bidankotza, (19-?), 32 or.*

nº 8955 *Refranes bizkainos (18-?), 12 or.*

Hirurok eta beste bat JU 9766 zenbakia daraman karpetan daude. Lehenak iparraldeko 80 errefrau biltzen ditu, bigarrenak 102, hirugarrenak Azkueren hiztegitik ateratako 302 eta beste batek Otsandianoko eskuzkributik batik-bat harturiko beste 213 atsotitz.

Kontutan hartzeko dira ere berriki berplazaratu den (Nimes, Lacour, 1992) Gustave Brunet-ek¹² Baionan 1873. urtean eginiko edizioa Voltaire-k bildutako errefrau euskaldun eta gaskoiekin, eta egunean beste bibliografia ohar batzuekin ipinita.

XX. mendean errefrau eta esamolde bildumak osatu dituztenen artean Jean Elissalde¹³, Resurrekzion Maria Azkue¹⁴, Damaso Intza¹⁵, Joseba Gereño¹⁶, Koldo Izagirre¹⁷, Antonio Zavala¹⁸ eta Justo Mokoroa¹⁹ aipa ditzakegu, besteak beste.

Elissaldek zioenez, xaharren atsegingarri eta gazteen argitzaile ondu zituen han eta hemen, Lapurdin, batez ere, 1025 atsotitz, zuhur-hitz, edo erran zahar.

11. Endrike Knörr, "De re bibliographica. Le répertoire de mss. sur la langue et la littérature basques de la Bibliothèque Nationale de Paris" (sic), *ASJU*, XX-3, 1986, 811-816.

12. Gustave Brunet, *Anciens proverbes basques et gascons recueillis par Voltaire et remis au jour*. Bayonne, P. Cazals, 1873.

13. Jean Elissalde, *Atsotitz, Zuhur-hitz eta Erran-Zahar*. La Presse, Baiona, 1936.

14. Resurrección María de Azkue, *Euskalerraren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. T. III: Proverbios, Modismos, Lenguaje infantil, Trabalenguas, Sobrenombres, Acertijos*. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid, 1935-1947.

15. Damaso Intza, *Naparroa-ko euskal-esaera zarrak*. Diputación Foral de Navarra, Pamplona-Iruña, 1974.

16. Joseba Gereño, *Diccionario de modismos con ejemplos de aplicación*. Euskara-castellano, castellano-euskara. Bilbo, 1980.

17. Koldo Izagirre, *Euskal lokuzioak*. Donostia, Hordago, 1981.

18. Antonio Zavala, *Esaera zaarren bilduma berria*. Auspoa 184-185, Tolosa, 1985.

19. Justo María Mokoroa, *Repertorio de locuciones del habla popular vasca*. Etor-Labayru, Donostia, 1990.

Azkuek bere aldetik 2.936 bildu zituen, hauetarik 2047 herritik jasoak, alegia, belarriz hartuak eta 889 begiz ikasiak, hots, libururen batetik hartuak. Bereizten zituen berak "Esakerak / Modismos" deitzen dituen esamoldeetatik, eta bederlatzi sail ezberdinetan banatu zituen, semantikoki bereziz.

Intzak Nafarroakoak bakarrik bildu zituen herriz-herri sailkatuz. Orotara 2500, esaera zaharrekin batera asmakizunak ere ematen dituelarik.

Zavalak, berriz, atsoitz bat topatzeko biderik errazena eta azkarrena ematen duen irizpideari jarraiki zion, hau da, alfabetikoki emateari, 3133 bildu dituelarik. Tamalez ez digu bibliografia hala ematen, horrela idazle batenak hor dauden aurkitzea zailago egiten zaigularik.

Gereñoren *Esaeren Hiztegia* eta Izagirren *Euskal Lokuzioak* gramatika kategorien arabera emanak daude, eta Mokoroaren bildumakoak, azken hau aberatsena delarik, 92.167 bildu baititu, XXIII gai nagusi eta 766 kontzeptu nagusien arabera. Hain oparia izanik, ordea, badu akats eta hutsunerik. Adibidez Lezoko hiru laguntzaileak G, hau da, gipuzkerakoak bezala ematen ditu, goi nafarrerakoak direla, halaber Jakes Belakoa L. hau da, lapurterekoa bezala zubererakoa denean. Bidenabar Bertrand Zalgizekoaren aipamenik ez da ageri.

Badu zereginik norbaitek arlo honi heldu nahiko balio eta esaeren frantses hiztegia, Petit Robert-a eredu gisara hartuz, adibidez, sailkatu nahiko balitu denak alfabetikoki, urtea, euskalkia, ingurunea eta esan nahia xeheki, argi eta garbi adieraziz.

B) HERRI-TEATROA

Herri-teatroa, eta bereziki zuberotarra euskal literaturak daukan altxorrik preziatuenetakoa dugu, zeinen testuak, ordea, behin eta berriro salatu dugun²⁰ bezala, morala, hizkuntza eta bestelako aurre-irizienatik gaizki eta gutxi ezagutzen diren.

Jada 1855.urtean Francisque Michel-ek, folklore, etnologo eta literatur ikerleak Prosper Merimée-ri zuzendu gutun batean²¹ eskatzen zion galera handiak izan zituen euskal antzertia lehenbailehen erdiaroko idazlan berdintsuekin ohitu kritikariak presta eta plazara zezan.

Tamalez bere desio eta gogo hura ez zen bete. Soilik euskal literaturaren aztertzaile banaka batzuek egin zioten kasu.

Hala, Jules Vinsonek²² *Saint-Julien d'Antiochie* deituriko pastoralara argitaratu zuen 1891ean, eta hau lehen aletik igaro ez zen Bildumako lehen alea zen. Lehena eta azkena, beraz.

Mende hasieran George Hérelle euskaralogo eta hispanistak argitaratu zuen ere errepertorio komikotik obra bat *Canico eta Beltchitine* tituluduna²³, baina frantsesera itzulia eta euskaraz ez da ezagutu 1971ean Gabriel Arestik²⁴ plazaratu zuen arte.

20. Patri Urkizu, *Euskal Antzertia*. Eusko Jaurlaritza, Donostia, 1984; -, *Zuberoako irri teatroa; Astolasterrak*. Gipuzkoako Kutxa, Donostia, 1988; -, "Introducción a las farsas charivarías vascas", *Mundaiz* nº 36, Donostia, 1988, 31-38; -, "Teatro popular suletino: Las pastorales", *Epos*, Vol. VII, UNED, Madrid, 1991, 639-648.

21. Francisque Michel, "Lettre à M.P. Mérimée sur les Représentations dramatiques dans le Pays Basque", *Athenaeum français*, 1855, iv. Gutunaren berrargitaldia: *Eskualdun ona*, Baiona, 1907, X-4, 25.

22. *Saint Julien d'Antiochie, pastorale en langue basque*. De. Julien Vinson. Bordeaux, Vve Moquet, 1891.

23. George Hérelle, *Canico et Beltchitine. Farce charivarique traduite pour la première fois du basque en français, d'après le manuscrit unique de la Bibliothèque de Bordeaux et accompagnée d'une NOTICE SUR LE THEATRE BASQUE, et d'un commentaire par...*, H. Daragon, Paris, 1908.

24. Jakes Oihenarte, *Kaniko eta Belxitina*. Gabriel Arestik moldatutako lehen imprimaldia. Lur, Donostia, 1971.

Mitxelenak bere Euskal literaturaren historian²⁵ Michelen nahien oihartzuna emango digu, eta ele saminak idatzi zituen Arestik Urquijoren kontra ez zuelako argitaratu nahi izan berak zuzendu errebistan astolasterrik, besteak beste, aitzaki hauek zirela eta:

Canico et Beltchitine... está, por otro lado, desarrollado en un lenguaje tan libre y grosero, que la representación de *Canico et Beltchitine* en cualquier pueblo de Vizcaya, Guipúzcoa o Labort provocaría unánimes y ruidosas protestas²⁶.

Sentsibilitatea aldatuxea dela mende honetan zehar uste dut, batez ere azken hamartetan ikuskizunarekikoa, oker ez banago, baina literatur mota honekikoa ez hainbeste; soilik, Txomin Peillen²⁷, Iñaki Mozos²⁸, Beñat Oyharçabal²⁹, eta neu³⁰ izan baikara arduratu garenak testu zaharrak plazaratzen. Eta testuen plazaratzearen garrantziaz eta urjentziaz, beste ikerketa mota zenbaiten aurrebaldintza bezala mintzatu zen beste gauza anitzen artean Arene Garamendi herri-teatroari eskainitako tesian³¹.

Pastoralari azken urte hauetan, nik ezagutzen dudanez, beste bi azterketa ezberdin aurkeztu dira. Bata frantsesez eta "Mémoire de maîtrise d'Etudes Théâtrales" moduan eta euskaraz bestea, Euskal Filologiako tesi gisara. Frantsesez Parisen Héléne Etchecopar-Etchartek³² antropologia eta soziologiaren ikuspegitik, eta euskaraz Gasteizen Iñaki Mozosek³³ filologiarenetik. Biak benetan interesgarriak eta laister argitaratuak ikusi nahiko genituzkeenak.

Ez litzateke, ordea, azterketa lana hauen moldiztegitratzearekin, zeren oraindik hor geldituko lirateke plazaratzeko 53 testu luze pastoralenak, eta 30 labur astolasterrenak.

Adibidez, *Jundane Jakobe Handiaren trageria*, 1634. urtekoa dena, beraz lehen euskal antzerkia, hots, testua, eta prestaturik daukadana argitaratzeko, dagokion hitzaurre, 6832 bertsoen transkripzioa eta ikerketarekin, duela hiru urte Eusko Jaurilaritzako Antzerti Zerbitzuak esan zidan ez zegoela dirurik plazaratzeko. Halaber, Astolasterren bildumak, orotara 14.031 bertso dauzkanak eta 1988az geroztik Euskaltzaindian dagoenak argitaratzeko, garai hobeagoen zai dago, antza, argia ikusteko.*

Eta pastoral, astolaster eta maskaradez aparte azken urte hauetan testu argitaratze mailan hor ditugu neronek plazaratu Jean Etxeberriren *Arroltze ohoina*³⁴, eta Xipri Arbelbidek

25. Luis Michelena, *Historia de la literatura vasca*. Minotauro, Madrid, 1960, 30.

26. *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, II, 1908, 487-491.

27. Txomin Peillen, "Chirevoua eta Marcelina (Astolasterria edo Charivarri)", *ASJU*, XVI, 1982, 265-326.

28. Iñaki Mozos, *Ihauteria Euskal Literaturan*. Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1986.

29. Beñat Oiharçabal, *La pastorale souletine. Edition critique de Cherlemagne*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1991.

30. Patri Urkizu, "Recoquillart eta Arieder", "Chiveroua eta Marceline", *ASJU*, VII, 1973, 117-225. -, *Astolasterrek*, Eusko Jaurilaritza, Antzerti Zerbitzua 67, Donostia, 1984. Artikulu hau idatzi ondoren plazaratu dut: *Jundane Jakobe Handiaren Trajeria (1634)*. *Lehen euskal antzerkia*. Errenteriako Udala 1996.

31. María Arene Garamendi, *El teatro popular vasco. Semiótica de la representación*. Donostia. Gipuzkoako Foru Aldundia, 1991.

32. Héléne Etchecopar-Etchart, *Etude de la pastorale souletine dans sa représentation, son contexte et sa pratique sociale*. Mémoire de Maîtrise d'Etudes Théâtrales. Directeur: Pierre Voltz, Janvier 1993. Université de la Sorbonne Nouvelle. Parise III. Institut d'Etudes Théâtrales.

33. Iñaki Mozos, *Jean de Paris trageria: eskuzkribuen azterketa eta iturriaren moldamoduak*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 1995 (Tesi argitaragabea).

* Biak jada plazaratu dira: Errenteriako Udala (1996), eta Izpegi (1998).

34. Patri Urkizu, "Jean Etxeberri: Arroltze Ohoina (Sara, 1884)", *Egan*, Donostia 1986, 3-22.

argitaratu Martin Hiribarrenen *891an euskaldun gerla*, drama historikoa 1866 baino lehen idatzia³⁵, eta ezagutzen dugun XIX. mendeko euskal antzerkia dena, bertsotan eta pertsona kulto batek idatzi izanak zertxobait aldentzen duten arren herri literaturatik.

Gerraurrean jenerorik idatziena izan zen euskal teatroak baditu ere hainbat eta hainbat lan egiteke, Marzelino Soroa berarekin, euskal teatro berriaren aitzatza eman izan denaren obren azterketa sakon eta aurkezpen serio batekin hasita.

C. KONTAGINTZA

Iaz Manuel Lekuonaren jaiotza mendeurrena ospatzen genuelarik Oiartzunen, Euskaltzaindiak III. Herri Literatura Jardunaldiak antolatu zituen eta hantxe mintzatu nintzen artzuriaketaz eta kontagintzaz³⁶; beraz, hemen han jada iraulitako ideia batzuk bilduko ditut.

Jean Duvoisin³⁷, Jean François Cerquand³⁸, Wentworth Webster³⁹, Jean Barbier⁴⁰, Resurrekzio Maria de Azkue⁴¹ eta Jose Miguel Barandiaran⁴² dira kontakizun bilduma egile-eterik batzuk, printzipalenak ez badira, Piarres Lafittek 34 biltzailereren zerrenda ematen digun arren⁴³. Honek dioenez, denek bildutakoen artean *Corpus Fabularum Vasconiae* eder bat osa liteke, milatik gora ipuin lituzkeena. Honen osaketan lagun dezakete, noski, gorago aipatu dugun Agustín Etcheverriren eskuzkribuak, Lafittek aipatu biltzailerena, Emile Larrek Donostian 1992. urtean ospatu Herri-Literaturari buruzko bigarren jardunaldietan iparraldeko herri-ipoin idatziez emandako zerrendak⁴⁴, eta Xabier Kaltzakortak Bizkaikoez⁴⁵.

Baina dena ez dago egiteke, zeren Juan Mari Lekuonak Gipuzkoakoez mintzo delarik aipatzen baitzikigu egin diren birziklaketak eta kontsumoko bildumak⁴⁶.

Azterketei buruz, hor ditugu aipatu *Euskara* aldizkarian zenbait lan sail bereziei buruz hala nola Martin Etxeberriarena ipuin harrigarriez, edota Julio Camarenarena oro hartuz euskal ipuingintzaren berezitasunak aztertuz.

35. Xipri Arbelbide, "Drame: 891an euskaldun gela". *Memoria L. Mitxelena magistri sacrum*. Ed. Joseba Lakarra et al., Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia 1991, 485-505.

36. Patri Urkizu, "Artzuriaketak eta kontagintza", *Manuel Lekuonaren mendeurrena ospatuz. Euskaltzaindia. III. Herri Literatura Jardunaldiak*. Euskera, 1995, 1, 153-161.

37. Jean Duvoisin, "Baigorriko Zazpi Liliak, Les sept fleurs de Baigorri et la reine des sept fleurs. La légende basque", *Revue des basses Pyrénées et des Landes*. Paris, 1883. Reed. Juan San Martín, Elkar, Donostia, 1987.

38. Jean François Cerquand, "Légendes et récits populaires du Pays Basque", *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts*. Pau, 1874-1885. Reed. Anuntxi Arana, Txertoa, Donostia, 1985.

39. Wentworth Webster, *Basque Legends, collected chiefly in the Labourd*. Londres, 1879. Itz., gaztelaniaz, Julio Velasco, *Leyendas Vascas*. Madrid, Miraguano, 1989. Orijinala euskaraz. Ed. Xipri Arbelbide, *Ipuinak I-II*, Euskal Klasikoak, Kriselu, Donostia, 1993.

40. Jean Barbier, *Supazter xokoan*. Baiona, A. Foltzer, 1924. Beer. Eduardo Valencia, Euskal Klasikoak, 16, Kriselu, Donostia 1987.

41. Resurrección María de Azkue, *Euskalerraren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. T. II, Cuentos y Leyendas*. Euskaltzaindia & Espasa Calpe, 1ª de, 1935-1947, 2ª 1989.

42. Jose Miguel Barandiaran, *El mundo en la mente popular vasca*. 3 Vols. Añamendia, Donostia, 1961.

43. Piarres Lafitte, "Euskal-ipoinak", *Euskal Literaturaz*. Ed. Patri Urkizu, Erein, Donostia, 1990, 62-63.

44. Emile Larre, "Iparraldeko herri-ipoin idatziak", *Euskera*, 1992-1, Bilbo, 463-476.

45. Xabier Kaltzakorta, "Bizkaiko herri-ipoin idatziak", *Euskera*, 1992-1, Bilbo, 477-496.

46. Juan Mari Lekuona, "Gipuzkoako herri-ipoin idatziak", *Euskera*, 1992-I, Bilbo, 449-462.

Eta ezin ahantz, ezin utz dezakegu hemen aipatu gabe berrehun titulutik gora daukan Zavalak zuzenduriko *Auspoa* bilduma, lan benetan estimagarria eta oraindik handiago eginen dena, biltzea lortu duena plazaratzen denean.

Bada, ordea, bilduma honetan kritika aldetik arazorik sortzen duen zerbait, eta da egile-arena, autorearena. Lejeunek Parisen, 1975ean *Le Pacte autobiographique* argitaratu zuenez geroztik, gero eta literatur kritikarien lan gehiagok heldu diote arazoari. Hau da, nola idatzi dezake norbaitek autobiografia bat idazten ez dakienean? Noski, beste batek esan, entzun eta grabatuaren arabera idazten duelako haren bitzita. Baina, nor da orduan egilea? Ez da oraintzekoa eztabaida, zeren San Ignazioaren autobiografia bera, dakigunez, ez zuen berak idatzi Luis Gonçalvesek baizik, baina haren hitzen erreproduktzioa hain da zuzena eta zehatza omen non, berak idatzia zitekeen, eta bere ixtoriak autobiografia benetazkoaren bapate-kotasuna mantentzen duen Gonçalvezen memoria harrigarriari esker⁴⁷,

Lafitteren lanean aipatzen da nola ipuin guztietan azken finean Halabeharra agertzen den, eta *Oro har, ipuin xarrek ihes-bide zirelarik, banago ustegabetarik ez zirenetz lo-belar*. Eta ezaugarri hau ez legokieke ipuinei bakarrik, Jon Kortazar-ek dioskunez Hans Arpen hitzak bilduz, ahoko literatur guztiari baizik, zeinentzat

*la literatura oral ocupa el lugar de un arte primitivo, inocente, armónico, que puede "curar al hombre de la locura de la época"*⁴⁸.

Dena den, ez dut uste hain inozente eta armoniotsua denik euskal ipuingintza, sexo eta biolentzia kasutan adibidez, irakurtzen badugu Aitxus Iñarrak UNEDen iazko ikasturtean nere zuzendaritza edo laguntzarekin aurkeztu Memoria de Doctorado edo azterketa Hilketaz Barandiaran eta Azkueren ipuin bildumetan, eta berriki argitaratu dena⁴⁹. Horrelako eta antzeko azterketa gehiago, hala nola Martin Etxeberriak⁵⁰, Xabier Kalzakortak⁵¹, Xabier Bengoetxeak⁵² eta beste zenbaitek burutu liburuak, noski nahitanahiezko eta behar-beharrezko ditugu, literatura erkatuan oinarrituz eta hala antropologia nola soziologiak eskaini diezaguketen laguntzarekin gure ikerketak hobe daitezen eta gure herri irudimenaren ezagutzan sakontzen joan gaitezten.

D. BERTSO ETA KANTAK

Aipatu dugun artikuluan ahozko literaturaz, edo hitz bikote horren berezko barne kontrasesana gainditze arren ahozkotasanaz mintzo zaigularik Kortazar bi sailetan bereizten ditu jenero nagusiak. Batean tradizionalak bezala jotzen dituenak; eta ingles hitza erabiliz *performance*-ak edo mementoko arteekintzak, bestean. Hala baladak edo konta-poesia, poesia liri-

47. José Dominguez Caparrós, "Algunas ideas de Bajtin sobre la autobiografía", *Escritura autobiográfica*. Ed. José Romera et al., Visor, Madrid, 1993, 177-186.

48. Jon Kortazar, "Literatura de tradición oral en el País Vasco", *Cuenta y Razón del Pensamiento actual*. nº 84, Noviembre-Diciembre 1993.

49. Aitxus Iñarra, *Hilketa euskal herri-kulturan. Hitzaurrea: Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegí"*. Iralka, Irun, 1994.

50. Martin Etxeberria, *Euskaldunen ipuin harrigarriak*. Jakin, Oñate, 1973.

51. Xabier Kalzakorta, Luis Mari Larrinaga, Juan Manuel Etxebarria, *Tradiziozko ipuingintza*. Gauontza sorta, Labayru, Bilbao, 1989.

52. Xabier Bengoetxea, *Euskal ipuinak (Lehen hurbilketa)*. Erein, Donostia, 1986.

koa eta kontua lehenean sartuko lirateke eta bertsolaritza-pastoralak bigarrean. Errefrauez ez dio deus. Nik, ordea, hasieran esan bezala zaku berean sartu ditut bertsoak eta kantak gero bereiziko ditugun arren.

Gizona gizon denez gero kantuz ari zaigu eta herrialde guztietan hala bada gurean areago. Baina noiz hasten dira kantazale eta bertsozaleak biltzen eta idazten herri anonimo, izengabearen fruitu, emaitz horiek lehen liburu imprimatuak XVI. mendekoak badira? Erroman-tizismoaren garaian hasten direla ugaritzen esan genezake eta batik-bat Herder, Schelling, Shlegel eta Grimm anaien eskutikan herri xumearen emaitza horiek balio handiko bezala kontsideratzen, kontrajarriz jakintsuen poesiari, *Kunstpoesie* denari, herriaren izpiritua gordetzen duen *Naturpoesie* delakoa.

Gure kasuari dagokigunez, aipatu nahi dut lehen bertso zahar eta berrien bilduma argitaratu nuenean⁵³, hau da, euskal lehen bertso eta kanta bildumaren aitzin-solasean nioena, Jose Azurmendiren hitzak jasoz, Antonio Zavalaren hitzen gainean bertsolaritzaren historiaz, funtsezko liburua izan den *Bosquejo de una historia del bertsolarismo vasco* delakoa eta:

1801 aurretik "todo es oscuridad (...) apenas se encuentra otra cosa que confusión y fragmentos". Bai dena dago ilun: baina inork argirik egiten ez duelako; ez agian, egiterik ez dagoelako⁵⁴.

Eta argi xume bat egiten saiatu nintzen hitzaurre hartan, hango balioez oso jende gutti ohartu arren, Jean Baptiste Orpustani benetan iker lan interesgarria idatzarazi bazion ere⁵⁵.

Gauza beretsua esan dezaket beste edizio mota mereziko zuketean geroxeago plazaratu nituen Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bostehun bertso eta kanta anonimoez⁵⁶, zeinetarik hogeitaz eskuzkribu ezberdin erabiliz berrogeita hamarren bat poema edo bertso inoiz argitaragabeak ziren, eta aipatzen nuen ere Barkoxeko koblakari-eskola XVIII-XIX mendeetan zeinen artean ziratekeen Beñat Mardo, Museña, Alexis Arotx, Idiart Zalgitzekoa, Piarres Topet Etchahun, Artzaia, eta Dominike Harichabalet beste batzuen artean.

Dena den, 1956an *Eusker*a aldizkarian kontaktatu zuenez geroztik Euskal Herrian zehar zebilela bertso biltzen, eta 1964ko gaztelaniazko liburu mugarri horrez geroztik, makina bat lan aurkeztu digu Zavalak. Besteak beste, Frantziak iraultza eta Konbentzioko gerraren gainean ezarritako bertsoak plazaratuz, eta beraz, argi zerbait eginez XVIII. mende bukaerako bertsogintzaz⁵⁷.

Halaber XVIII. mende hasierako Ochoa de Arinen dotrinaz mintzo zaigularik honakoa dio Patxi Altunak:

Hor aurkitzen ditugu garai hartako bertsolaritzaren eta bertso paperen bi lekukotasun eder. Seigarren aginduaz ari delarik, lehendabizi, eta inoren hitzak, ez bereak, bali-

53. Patri Urkizu, *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)*. Durangoko Udala, 1987.

54. Jose Azurmendi, "Bertsolaritzaren estudioarako", *Jakin* 14-15. Donostia, 1980, 159.

55. Jean Baptiste Orpustan, "Trois poèmes basques du XVIII siècle (1766) sur la vallée d'Ossès, *Hommage au Musée Basque*, Bayonne, 1989, 531-573.

56. Patri Urkizu, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. I. Anonimoak; II 1545-1900*. Donostia, Etor, 1991, -, "Barkozeko koblakari eskola XVIII-XIX. mendeetan". *Luis Villasanteri omenaldia*, Euskaltzaindia, Iker 6, Bilbao, 1992, 521-531.

57. Antonio Zavala, *Frantsesetako bertsoak*. 2. Vol., Tolosa, Auspoa, 1991; *Frantziako iraultza eta Konbentzioko gerra bertsoan*. Donostia, Etor, 1989.

ra bezala honako hauek azpimarratu ondoren, "Ambeste aditcen da canta deshonestoac esanaz eta dantza torpeac eguinaz", honela dio:

Escrivitu ote deban versoric, edo paperic aficio torpea aditcera ematen debanic, eta iracurri ote deban onelaco moetaco libururic edo paperic⁵⁸.

Erreferentzia berdinsua egiten digu ere Athanase Belapeyre XVII. mende bukaeran argitaratu dotrinan:

G.- Chahu eztiren khantoren erraitia eta iracourtcia gaizki deya?

Y.- Bay...⁵⁹

Eta modu horretakoak izango ziren, noski, Miraballesco (1685) edota Tolosaco (1619) kopia zaharrak bezala, tamalez anitz jada galduak ditugunak, gure ezaxolakabearen ondorioz. Baina nola dagoen arlo honi buruzko ikerketaren adierazgarri da oraindik Agosti Chahoren kanta bilduma, berak zuzentzen zuen kazetan, ARIEL-en 1845. urtean argitaratzen hasia eta bere hitzetan ezagutzen zenetarik aberatsena, oraindik ez dugula ezagutzen, ez badira hasierako bertsolerroak⁶⁰, eskuzkribua ez baita argitaratu Telesforo Monzonen alargunaren liburutegian datzalarik.

Duela gutxi, ordea, izan dugu Aita Donostiaren Kantu Bilduma osoki argitaraturik ikusteko zoria, hau da, bere VI-VII-VIII eta IX. liburukiak Jorge de Riezuren eskutik⁶¹.

Ez uste honekin bertso eta kanten bilduma eta ikerketa burutua denik, zeren testu plaza-razte kontutan soilik Chahoren bildumaz aparte hor daude Anton Abbadiaren Lore Jokoetara aurkezten ziren hainbat eta hainbat bertsogile argitaragabe.

Hauetarik batzuk ezagunak izan arren neronek argitaratuak baititut *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako Bertso eta Kantak II. 1545-1900* liburukian, gehienak oraindik plazaratu gabe daude⁶². Noizpait norbaitek egingo ahal du Zavalak egin duena Hegoaldeko bertsolariekin iparraldekoekin, eta ez bakarrik XIX. mendeko horiek XX.ek ere mereziko luketelakoan nago eman zaien baino garrantzi gehiago.

Jakina den bezala XIX. mendeko euskal poesiaz eginiko tesi bakarra Jean Haritschelharrena⁶³ da, eta bereziki Pierre Topet-Etchahunen obran finkatua, baina iparraldea ukitzen du gehienbat, eta horrelakoren bat mereziko luke ere esan bezala XX. mendeak. Hor ditugu, dena den, abiapundu eta iradokizun benetan interesgarriekin Manuel Lekuona⁶⁴ eta

58. Patxi Altuna, "Ochoa de Arin-en Doctrina Christiana-ren (1713) hizkeraren laburpena", *Euskera*, Bilbo, 1992-I, 575.

59. Athanase Belapeyre, *Catechima laburra eta Jesus-Christi goure ginco jaunaren eçagutcia, salvatu içateco*. Paben, 1696. Ed. kritikoa, Jean Louis Davant, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983, 83.

60. Jean Haritschelhar, "En torno a la balada", *Congreso de Literatura (Hacia la literatura Vasca). II. Euskal Mundu-Biltzarra*. Castalia, Madrid, 1989, 461-495.

61. *Cancionero Vasco*. P. Donostia. Editor P. Jorge de Riezu. Colaboradores: Juan Mari Beltrán, Claudio Zudaire. VOL. VI-VII-VIII y IX. Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Donostia, 1991.

62. Patri Urkizu, *Anton Abbadiaren Koplarien Guduak, 1851-1897*. Eusko Ikaskuntza & Euskaltzaindia, Donostia 1997. (Kontutan har hitzaldiaren dator).


63. Jean Haritschelhar, *Le poète souletin Pierre Topet-Etchaun (1786-1862). Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIX siècle*. Bayonne, 1969.

64. Manuel Lekuona, *La poesía popular vasca*. Sociedad de Estudios Vascos. Donostia, 1934.

Juan Mari Lekuonaren⁶⁵ lanak, hala nola euskal baladei buruz Joseba Lakarrak⁶⁶, Jon Juaristik⁶⁷, Adolfo Arejitak⁶⁸ eta besteek plazaratuak. Arlo anitz gelditzen da, ordea, aztertzeke, eta honen aurrealdintza dena, noski, testu argitaragabeen moldiztegitratzea.

Eta ezin dezaket bukatu esan gabe ene uste apalez Kultur Erakundeek, hala Eusko Jaurlaritzako Kultur Kontseilaritzak nola Heziketakoak eta Hiru Aldundietakoek badutela erres-pontsabilitaterik honetan, alegia, gure herri literaturaren hondarea hobeto ezagutua izan dadin bitartekoak ezartzeko onean, hainbeste maite omen duten herriarenganako froga eta seinale baillizateke, eta altxor hori ezkutuan dagoen bitartean kultur erresponsableen hitzak hutsak izanen dira.

Amaitu dut. Mila esker zuen arretagatik.



65. Juan Mari Lekuona, *Ahozko euskal literatura*. Donostia, Erein, 1982.

66. Joseba Lakarra et al., *Euskal Baladak. Antologia eta azterketa*. Lur, Donostia, 1983.

67. Jon Juaristi, *Flor de baladas vascas*. Visor, Madrid, 1989.

68. Adolfo Arejita et al., *Mendebaldeko Euskal Baladak. Antologia*. Labayru, BBK, Bilbao, 1995.

